



TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

# hitza



Osteguna  
2008-01-10

VIURTEA 1.332 ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

## Tolosako EAE-ANVk Udalean parte hartzeko konpromisoa berretsi du

**ALDERDIEN LEGEA** Esaten dutenaren aurka jokatzeko dutela EAJ eta EA alderdiek salatu dute

**MOZIOA** «Lan egiteko gutxieneko baldintzak sortzea zuen helburu, eta bilkurara ez zuen eraman EAJk», diote s



HITZA



E. EZBIZA

**MARIA MARTIN** ALDEM ZENTROKO ZUZENDARIA

«Bizitzan zehar zoriontasunaren bila aritzen gara»

**TOLOSA** 'Kontzientziaren iratzartzea' izenburupean hainbat hitzaldi emango ditu z

**EUKENE IZAGIRRE** FLAMENKO ESKOLAKO ARDURADUNA

«Flamenkoa ez da erraza, artea da. Ez duzu inoiz erabat ikasten bukatzen»

**TOLOSA** Atzerritarrentzako flamenko eskola dauka Sevillan Eukene Izagirre tolosarrak; duela hamabi urte ireki zuten z

### Tolosako Kultur Etxean HITZALDIAK

#### Kontzientziaren iratzarpena

**Urtarrilak 10**

Zer gara? pertsonak ala makinak...

Nor gara? Kontzientzia, pertsonalitatea, egoa!

**Urtarrilak 11**

Hitz egin dezagun Chacra izeneko zentro energetikoetaz

**Urtarrilak 14**

Chacren psikologia ezkutua

Tel.: 688 607 816 - 688 642 923



**E Elkarrizketa****MARIA MARTIN** ▶ Aldem zentroko zuzendaria

**Tolosa** ▶ 'Kontzientziaren iratzartzea' izenburupean hainbat hitzaldi eskainiko dituzte egun hauetan Kultur Etxean; hizlaria Maria Martin Tolosako aditua izango da.

**ESTI EZEIZA**

Duela urte batzuetatik hona, Maria Martinek (Tolosa, 1961) kontzientziaren iratzartzearen inguruko eskolak ematen ditu doanik Tolosan. Oraingai konplexu eta zabal honen inguruko hitzaldiak eskainiko ditu Kultur Etxean.

**Zer da kontzientziaren iratzartzea?**

Gai oso zabala bada ere, gisa honetan laburbilduko genuke: Orohar, gizakiak bizitza honetan lortu nahi duena zorientasuna da, zorientasun osoa. Hori dela eta, bizitzan zehar aldarte horren bila aritzen gara. Honenbestez, hona iristeko bide horretan, oharitzen gara, zorientasun hori kanpoan bilatzen badugu, ez dugula lortuko, hau, gure baitan baitago. Bilaketa horretan, alai, pozik gauden uneak izan ditzakegu, baina hori ez da zorientasun osoa.

**Zorientasun oso hori lortzen laguntzen duzue, beraz zuek?**  
Zorientasun oso horretara iristeko zer garen jakin beharra daukagu. Gure egitura honen baitan ezjakintasun handia baitaukagu. Ondorengo bi kontzeptuak asko

**» KONTZIENTZIAREN IRATZARTZEA****Urtarrilak 10, gaur**

**20:00.** Zer gara? Pertsonak ala makinak... Nor gara? Kontzientzia, pertsonalitatea, egoa!

**Urtarrilak 11, bihar**

**20:00.** Hitz egin dezagun Chacra izeneko zentro energetikoetaz.

**Urtarrilak 14, astelehena**

**20:00.** Chacren psikologia ezkuta.

tan nahasten ditugu, kapazitate intelektuala eta barneko erabateko jakituria. Izan ere, beti kanpora begiratzen dugu, eta ez gure barnera.

**Nola ikusarazi ahal zaio pertsona bati, zorientasuna gure baitan dagoela eta ez kanpoan?**

Jendea bere barnera begiratzen

**Iragarki laburrak****SALGAI**

■ **Rodiloa.** Txirinduarentzako rodiloa. Deitu 699 60 91 40ra.  
■ **Autoa.** Volkswagen Passat. 2004. 1.900 TDI. 130 zaldi. Deitu 620 72 76 91ra.



ESTI EZEIZA

## «Bizitzan zorientasunaren bila aritzen gara»

hasten da, sufritzeaz aspertu denean. Konturatzen denean kanpoko gauzak ezin dituela aldatu, eta hauekiko duen jarrera egokitu beharra daukela. Hau da, sufritzeaz nazkatzeaz nazkatu denean, eta oharitu, bide horretatik ez duela konponbiderik lortuko.

**Noiz hasten da pertsona bat bere barnera begira?**

Beharra duenean, lehenago ez. Horrek ez du esan nahi gure esku ez dagoenik. Beti baitago gure esku barnera begiratzen hastea. Gure burua ezagutzeko aukera beti hor dago, baina beharra sentitzen dugun arte ez gara hasten. Hori dela eta, pertsona bati ezin zaio behartu ikusi nahi ez duen gauza bat ikustera.

**Baina arazoak hasi aurretik hau lantzen hastea ez al da komenigarriagoa?**

Bizitzan arazo asko daude. Pertsona bakoitzak bere barnera begiratzeko beharra momentu ezberdinetan izan dezake. Gure eskoletara gazteak nahiz helduak etortzen dira, ez dago adinik honetarako. Kontuan hartu behar da, nolakoa izan den bere bizitza, zein den bere pentsatzeko modua... Egia da, osasun arloan bezala, onena ekiditea dela, baina bakoitzak ikusi behar duen gauza bat da. Beraz, pertsona bat barnera begira hasiko da, konturatzen denean, kanpoko gauzek ez dituela zorientasun oso hori lortzeko balio.

**Zergatik ezin dugu zorientasun osoa lortu?**

Arrazoietako bat ezjakintasuna da, zein hau, gizakiaren gaitz ikaragarria den. Uste izatea dena dakigula. Batzuetan, gazteak garelako eta mundua jan behar dugula uste dugulako. Besteetan heldua-

goak garelako eta esperientzia gehiago dugulako. Kontua da, nor den, non dagoen eta nora doan ez dakien pertsona bat, ezjakintasun horretan erori dela. Izan ere, bizi garen mundu honetan, gauza guztiak kanpora begira egiten ditugu, eta oso gutxitan gure barnealdea lantzeko.

**«Gure burua ezagutzeko aukera beti dago, baina beharra sentitu arte ez gara hasten»****«Gizakiak bizitzan zorientasun osoa lortu nahi du; hona iristeko zer garen jakin behar da»****«Kontzientzia iratzartzea beharrezko egiten zaie bizitza honetan kezka berezi bat dutenei»****Bakoitzaren barnealdea ezagutzeko bidea ezberdina al da pertsona batetik bestera?**

Ezberdintasun batzuk baditu. Bidea bera da, baina bakoitzak ulertzeko modu ezberdinak ditu. Bi pertsona kontzientziaren iratzartzearen bidean ari badira ere, eta kontzeptu zientifikoa bada ere, bakoitzak momentu horretan duen behararen arabera aldatu egingo da. Batzuek osagai batetik gehiago, beharko dute, eta bestetik gutxiago. Hori delata, esan daiteke, prozesu horretan dagoen batek, oso ondo ulertu dezake. Bestalde, ezin da inor behartu kontzientziaren iratzartzearen bide hori egitera.

**Nolakoak dira ematen dituzuen eskolak?**

Eskolek bi zati dituzte, alde batek, praktikoa, eta bestetik teorikoa. Bata bestearekin lotua dago, eta ez du balio alde bat bakarrik lantzeak, bietako bat bakarrik eza gutuz gero, bestea ezin da garatu. Gure eskoletan ikasten da gorputza erlaxatzen, meditatzen... Izan ere, egunean zehar, 24 ordu horietatik asko, kezkatuta igarotzen ditugu. Hala, ikasten da, gauden momentu bakoitzean, egiten ari garenean zentratzea, eta ez iragoneko edo etorkizuneko arazo eta egin beharretan. Honek ahal egin bat eta prozesu bat eskatzen du.

**Beharrezkoa da kontzientzia iratzartzea bizitza ona eramateko?**

Bizitzeko edo pertsona azkarrak izateko ez da beharrezkoa kontzientzia iratzartzea. Kontzientziaren iratzartze hori beharrezko egiten zaie, bizitza honetan, kezka berezi bat dutenei, hau da, zerbait falta dutela sentitzen dutenei.

**Ze onura dakartza kontzientzia iratzartzeak?**

Hasteko bakoitzak bere buruarekin harreman hobea izaten du eta ondoren, aldamenekoekin. Hala, pertsonok ditugun kontraesaneak erantzunak ematen hasten da. Izan ere, une batean pozik gaude, eta hortik denbora gutxira, triste. Esaterako, kaletik goazela, norbaitek diosalik egiten ez badigu, lur jota geratzen gara. Honenbestez, pertsona batek kontzientzia hartzen duenean, onartzen joaten da, eta kanpoko gauzek ez diote horrenbesteko gora-beherarik eragiten. Dena den, kontzientzia iratzartzeak ez du esan nahi pertsona hori arraro bilakatuko denik. Alderantziz, bere ohiko bizitza egingo du baina sentibilitate eta ulerkortasun handiagoarekin.

**L Laburrak****Orfeoiazen batzar orokorra izango da bihar iluntzean**

**TOLOSA** ▶ Bihar, Tolosako Orfeoia deituta batzar orokorra egingo dute udaletxean. Ekitaldia 20:30ean izango da eta Orfeoiko kide, lagun eta ekimenaren inguruko interesa dutenei zuzenduta dago. Bertan, 2008rako dituzten proiektu berrien inguruan mintzatu-tuko dira.

**Kontzertu ugari asteburu honetan, Bonberenean**

**TOLOSA** ▶ Urteko egitarauari hasiera eman diote Bonberenean. Hala, musikaz blai dator asteburua. Hasteko, bihar, 22:30ean Cobra eta Willis Drumons izango dira hautsak astintzen. Etzi berriz, hau da, larunbatean, ordu eta toki berrean, Maika Makovski eta Brandy Hips musika taldeak ariko dira.

**Bizkarrezurreko arazoan inguruko hitzaldia**

**ALBIZTUR** ▶ Michel Marmier mediku kiropraktiko ezagunak hitzaldia eskainiko du urtarrilaren 17an, Kultur Etxean. Saioaren izenburua da, *Bizkarrezurreko arazoak. Zergatiak eta prebentzioa.*

**T Telefonoak****Larrialdiak. ((112))****OSASUNA.**

**Alegialdea.** Osasun z.: 943 653212

**Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 943 65 23 39

**Asteasu.** Medikua: 943 692423

**Baliarrain.** Medikua z.: 943 889003

**Berastegi-Elduain.**

Medikua: 943 683361

**Bidegoian.** Medikua: 943 681134

**Ibarraldea.** Osasun etxea: 943 672411

**Ikaztegieta.** Medikua: 943 653329

**Irura.** Osasun zentroa: 943 690720

**Leitza.** Osasun z.: 948 510800

**Orendain.** Medikua: 943 655595

**Orexa.** Medikua: 943 682228

**Tolosa.**

**Anbulatorioa, larrialdia:** 943 461111

**San Esteban:** 943 006800

**Gernikako arbola:** 943 006900

**Amarozko dispen:** 943 672637

**Asuncion klinika:** 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

**DYA:** 943 672536

**Gurutze Gorria:** 943 674888

**Villabona.** Anbulat.: 943 006970

**Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 943 693930

**GARRAIOAK.**

**Renfe:** 902 24 02 02

**Donostiako autobusa:** 943 361740

**Tolosalde bus:** 943 650621

**Leitzaran autob.**: 948 221015

**Taxia:** 943 670420

**Taxia (Leitza):** 608 873016

**BESTERIK.**

**Ertzaintza:** 943 538820

**Tolosa-Udaltzaingoa:** 943 675858

**Tolargi:** 943 650016

**Iurramendi egoitza:** 943 670325

**Tolosa gasa:** 943 675320

**E Elkarrizketa**

**EUKENE IZAGIRRE** > Flamenko eskolako arduraduna

**Kultura** >>

Atzerritarrentzako flamenko eskola dauka Sevillan beste lagun batekin; hamabi urte daramatza eta oso gustura dago; jendea oso irekia dela dio

**JOXEMI SAIZAR**

Sevillan flamenko eskola duen tolosar bat badago. Eta opor egun hauek jaioterrian pasatzen ari da gainera. Jakin bezain pronto berekin harremanetan jarri eta HITZArako elkarrizketarako hitzordua lortu genuen. Ikastolako ikasketak amaitu ondoren Idazkaritza eta Publizitatea ikasi zuen Eukene Izagirre tolosarrak. Alemanian ikasten ari zela bururatu zitzaizen berari eta lagun sevillar bati atzerritarrentzako flamenko eskola irekitzea. Hamabi urte daramatzate lan horretan eta mundu osoko bezeroak dituzte.

**Nondik sortu zitzaizuen flamenko eskola irekitzeko ideia?**

Alemanian Erasmus egiten aritu nintzen eta Sevillako mutil batezagutu nuen. Hamburgon zortzi flamenko eskola zeudela ikusi eta animatu ginen Sevillan horrelako bat irekitzera. Tokion 170 flamenko akademia daude, Frantzia ere pila bat... Interneten zabalpen garaia tokatu zitzaigun eta asko lagundu zigun. Sevillan baziren eskola gehiago, baina atzerritarrekin lan egiten zuenik ez. Orain asko daude. [www.tallerflamenco.com](http://www.tallerflamenco.com) helbidia dugu.

**Zer eskaintzen duzue?**

Flamenkoa, gitarra, palmak, kantua, gaztelania... Urtean behin ikastaro bereziak egiten ditugu profesionalekin: Yerbabuena, Belen Maya, Rafaela Carrasco... Ikusizunaren produkzioak ere antolatu.

**«Hamburgon zazpi flamenko eskola zeudela ikusita animatu ginen; Tokion 170 daude»**

tzen ditugu, baina oso zaila da. Atzerrian ere eskaintzen ditugu ikastaroak: AEB, Taiwan, Hong Kong... Eta ikastaroetara etortzen den jendearentzako alojamendua ere eskaintzen dugu oso modu onean, lagunen etxeetan eta.

**Zein da zuen azpiegitura?**

Etxe txiki bat dugu Sevillako Alameda de Herculesen, hainbat pisu eta gelarekin. Normalean bost edo sei irakasle aritzen dira, bertakoak denak. Eta beharren arabera, gehiago. Bulegoan lau edo bost lagun ari gara txandatu.

**Eta zein da zure lana?**

Administrazioan eta antolaketan aritzen naiz. Idazkaritza, publizitatea eta hizkuntzak (alemana, ingelesa) ikasi nituen eta ondo da-



JOXEMI SAIZAR

**«Flamenkoa ez da erraza, artea da eta ez da inoiz ikasten bukatzen»**

tozkit, nahiz eta saiatu bezeroekin gehiena gaztelaniaz egiten, hori ikastera ere etortzen direlako bezeroak. Gustura nago nire lanean, interesgarria da eta beti desberdina, egunero gauza desberdinak tokatzen direlako. Gainera asko mugitzen naiz eta edozein tokitatik egin dezaket lana Internet eta telefono mugikorriari esker, egun hauetan, adibidez Tolosatik ari naiz lanean. Datorren urtean Nueva Yorkera joan beharko dut gure tailerraren promozioa egitera AEBetan.

**Nondik etortzen zaizue jendea?**

Europarrak dira gehienak: alemaniar asko, frantsesak, italiarrak... Orain hasi zaizkigu amerikarrak etortzen. Japoniar gutxi batzuk eta txinatarrak ere hasi dira pixkanaka.

**Erraza da flamenkoa ikastea?**

Ez da erraza, artea da eta ez da inoiz ikasten bukatzen. Erritmoa eta konpasa da zailena, hori hartzen duzunean errezagoa egiten da. Denetatik etortzen zaigu, ezer ez dakien jendea eta dantza klasi-kotik edo garaikidetik datorrena. Flamenkoak engantxatu egiten du eta askok errepikatu egiten dute gure eskolan.

**Eta zu, aritzen al zara flamenko dantzatzen?**

Oso txarra naiz. Sevillan dantza-



Gitarra klase bat Sevillako flamenko eskolan. JOXEMI SAIZAR

**FLAMENKO KLASA BAT ETA EMANALDI BAT**

Eukene Izagirre Sevillatik Tolosara etorri da egun batzuk pasatzera. Eta ni, bera elkarrizketatu eta egun batzuetara, Tolosatik Sevillara joan naiz egun batzuk pasatzera. Bere flamenko eskola bisitatzeko aukerari ezin uko egin, eta hara joan ginen. Bertan zegoen Corinako oso ondo hartu eta eskola erakutsi ondoren, flamenko klase bat eskaini zigun Eukeneren partez. Ezin genuen horrelako bat aprobetxatu gabe pasatzen utzi.

Francisco *El pulgag* flamenkoaren palo edo estilo nagusiak azaldu zizkigun harbelan: 3/4ko erritmoan *solea*, *solea por bulerías*, *alegrías* eta *bulerías* (lehen mantsoena, besteak pixkanaka azkartzen) eta 4/4koan *tientos*, *tangos*, *rumbas* eta *tanguillas* (berdin, mantsoenetik azkarrenera). Palo bakoitzean emandako txaloak (*palmás*) eta oin-kolpeak agertu zizkigun zenbakien bidez. Teoria ondo, baina bere gitarraren laguntzaz praktikan jartzekoan hasi ziren komeriak. Nahiko farre egin eta zerbait ikasi gurela uste dut.

Flamenko emanaldia ikusteko okasioa ere izan genuen. La casa de la memoria-n Fragua flamenca taldea ikusi genuen: Marta Arias eta Juan Carlos Cardoso dantzariak, Jeromo Segura kantaria eta Manuel de la Luz gitarrarjolea. Eta gau batzuetan Carboneria tabernan egindako emanaldiak ere ikusi genituen. Egun gutxietan euskal dantzetatik eta bertsoarietatik flamenkora pasatu nintzen. Tokian tokioa.



tzen ausartzen naiz bakarrik. Hasi nintzen ikasten, baina ez duzu beinere bukatzen. Txikitari ballet pixka bat egin nuen eta horrek zerbait laguntzen dit.

**Zertan bereizten dira flamenkoa eta sevillanaka?**

Sevillan bertako dantza herrikoiak dira. Pauso batzuk ditu eta kitto, sormena sartu gabe. Flamenkoan palo edo estilo desberdinak daude: alegrías, bulerías, solea, seguidillas... Nahi duzuna egin dezakezu, baina beti erritmoaren barruan.

**Zein dira flamenko kantari eta dantzari onenak gaur egun?**

Abesten Arcangel eta Esperanza Fernandez, dantzan Eva la Yerbabuena, Terremoto semea... Askodaude.

**Jailaldi onenak?**

Frantzia, Mont de Marsan hirian uda guztietan egiten bat oso garrrantzitsua. Eta kantari dagokionez, La Union-en (Murtzia) meategietako jaialdia egiten da abuztuan.

**Nolako bizimodua da Sevillakoa?**

Bizimodu lasaia. Eguraldiak la-

**«Sevillan bertako dantza herrikoiak dira; pauso batzuk ditu eta kitto, sormenarik gabe»**

gutuzten du kalean bizitzeko, nahiz eta udan bero handia egin. Jende irekia da, lehen harremana oso erreza da, katxondeorako onak dira sevillarrak.

**Euskal Herritik joaten al zaizue jenderik?**

Bai, zailtasuna badago. Donostia-ko Amara auzoan adibidez, La Paquera de Jerez peña dago. Tolosan flamenko kontzertuak izan dira Fronton kafetegian eta beteta egon dira. Nire lagunak ere izan dira eta batzuk zerbait ikasi dute. Joaten direnean flamenkoaren ibilaldia egiten diet, gida bezala aritzen naiz lagunekin. Batez ere udan euskaldun asko joaten da Andaluziako kostaldera eta geldialdi bat egiten dute Sevillan, bisitan. Han esaten dute: zer zara, italiarra ala euskalduna? Gutxi gara, baina toki guztietan gaude.

**Maiz etortzen al zara Tolosara?**

Orain, Eguberrietan, gero Inauterietan eta sanjoanetan ere bai. Inauterietan beti, hori bai. Eta hango lagunekin etortzen naiz gainera. Askoda gustatzen zaizkie. Han Cadizeko inauteriki ezagutzen dituzte, baina hemengoak familiarragoak, parte-hartzaileagoak dira. Inauterietatik ezagutuak ez dira. Asteazkariarekin bezala exajeratu egiten duela uste zuten, baina orain badakite egia dela.

# «Oso arrakastatsua» izan da Shanti Txapelketaren aurtengo edizioa

**Kirola** » 68 taldek parte hartu dute, eta antolatzaileen arabera, «beti bezala, jendearen harrera apartekoa izan da».

HARRIET BELLOSO

Urtero bezala, Eguberrien etorrerarekin, Usabalgo kiroldegia Leo Messi eta Iker Casillas txikiez betetzen da, izan ere, sasoi honetan Eguberrietako Shanti Txapelketak hartu ohi du protagonismoa. Shanti Kirolak dendak antolatzen duen txapelketaren 28. edizioa izan da aurtengoa, eta «beti bezala guztiz arrakastatsua izan da».

Aurtengoan hiru kategoriatan banatu dira izena eman zuten 68 taldeak: benjaminak, alebinak eta infantilak. Mutilen kategorian talde ugari egon dira, batez ere benjaminetan, eta ikusleen iritzi norgehiagok politenak maila honetan jokatzaren direnak dira, gainera.

Nesken kategorian, aldiz, infantil eta alebin txapelketak jokatu dituzte soilik. Bestalde, antolatzaileek esan bezala, «oso talde gutxi



Eguberrietako Txapelketako finalerako partida bat Usabalgo kiroldegian. ANDER OTEZABAL

eman dute izena infantiletan, eta hori dela eta aurrera begira jokalariei federatutako jokatu ahal izango dute talde guztietan».

## Norgehiagok ikusgarriak

Txapelketan zehar «maila handiko partidak» ikusteko aukera izan dute Usabalgo kiroldegira gerturatu diren futbol zaleek. Alebin mailan, esaterako, Berastegitiki etorri ziren neskek norgehiagok ikusgarriak egin zituzten. Infantil

mutiletan, berriz, «aipatzekoa da Berrobiko eta Intxurreko taldeek lehiaketako norgehiagok politen jokatu zutela». Txapelketaren garaipena Berrobikoentzat izan zen Alegikoei finalean 2-1 irabazi ondoren.

Aurtengoa, gainera, sorpresa gozo bat izan dute finalerdiak iritsi diren talde guztiek. Irazo gozodendak hogeirege opil banatu baitzuten maila bakoitzeko lehen lau taldeentzat.

## Ikusle ugari harmailetan

Lehenengo fasean jende ugari gerturatu zen partidak ikustera, batez ere jokalarien gurasoak. Eta arazo txikiren bat ere izan zela azaldu dute antolatzaileek: «Usabalgo kiroldegian ezin da erre, baina dirudieenez batzuk ez dute oso ondo ulertzen debeku hau». Hori jenduta, txapelketarekin osogustura daude antolatzaileak, eta eskerrak eman nahi dizkie Usabalen egun hauetan lan egin duten guztiei».

## Gauzak txiki ikustean



### » Zilarrezko jaurtiketa

Jon Altuna

**D**enbora batean idatzi gabe egon ondoren berriro ere hemendakoz lehen batzuk idatzi asmatan. Gabonetako geldialdiaren ondoren berriro ere betiko martxara bueltatu gara, eta egia esan ondo etorri zaigu Gabonetako geldialdia fisikoki eta moraliki indarberritzeko.

Gabonak ondo aprobetxatzeko aukera izan dugu, lagunekin egon, parrandaren bat egin, familiarekin egon..... Gabonetan denek egin ohi duguna egiteko. Baina, gauza on guztiak azkar amaitzen direnez Gabonak ere berehala pasa dira eta berriro ere egunerokotasunean murgildu gara. Entrenamenduetako betiko martxa hartu eta berriro ere partiduei aurre egiteko prestatzen ari gara.

Urrunera joan gabe, Errege Bezeran izan genuen 2008 urteko lehen partida eta irabazteko lortu genuen. Baten batek, gola sartzerako orduan atea txiki-txikia ikusi zuen eta ez zuen asmatu, hala ere, taldeak irabazi egin zuen eta gaitzerdi. Albaceteren aurka jokatu genuen partida gogorra eta zaila izan zen, baina irabaztea lortzearekin batera talde hau hamaika puntura utzi dugu atzetik eta jeitsiera postuekiko tarpe polita egin dugu dagoeneko.

Hainbestetan aipaturiko 50 puntuetara iristeko bidea gero eta motzagoa da, eta lanak ondo egiten ari garenez partidak lasaitasunez jokatzeko aukera dugu. Hurrengo partida bigarren sailkatuaren aurka dugu Sorian. Entrenatzaile aski ezaguna, Gonzalo Arkonada, lan bikaina egiten ari da baina ea guk bere lan hori apur bat itsusitzeko aukera dugun garaipen bat etxera ekarri.

# 'Amamaren memoria' antzezlan, Gurean

**Kultura** » 22:00etatik aurrera izango da antzezlan; Alzheimer gaixotasunari buruzkoa da, baina umore ukituekin.

ERREDAKZIOA

Pok eta Theatre des Chimères konpainien eskutik *Amamaren memoria* antzezlan izango da bihar ikusgai Gurea antzokian, 22:00etatik aurrera. 8 euro ordaindu beharko da sarrera, eta gazte txartela duenak, berriz 6.

Olatz Beobide, Axen Egaña, Mikel Laskurain, Lierni Fresnedo, Yannick Vergara, Joxelu Berastegi eta Kepa Errasti dira antzezlan



*Amamaren memoria* antzezlaneko une bat. HITZA

honetako aktoreak. Zuzendaria, berriz, Jean-Marie Broucairet da. *Amamaren memoria* Herve Ja-

ouen idazlearen *Mamie-Memoire* liburuan oinarritua da, eta Alzheimer gaixotasuna duela jakiten

duen amona baten eta bere familiaren istorioa da. «Bizitzaz hitz egiten du, oroimenaren transmisioaz. Sarritan ahaztu egiten dugu gure aitona-amonek asko erakutsi diezaguketela, eta ia ezagutu ere ez ditugu egiten. Obra zoragarria da», alatzen du Olatz Beobide antzezlaneko aktoreak.

## Umore ukituak

Berez dramatiko den gaia modu originalean eta umore ukituekin aurkezten dute. Bilobaren ahotik ezagutzen du ikusleak nola iristen den amona etxera, eta nola hasten den poliki-poliki hura ezagutzen. Familia osoari zuzendurikoa da, dagoeneko estreinatua den herriertan harrera ona izan duen lan hau.

txokoa  
**h**



Gorrotxategi gozotegiko produktuez osaturiko  
**saskia**  
zozketatu dugu gure harpidedun guztien artean!

irabazlea:

◦ Jesus Mariezkurrena (Leitza)



HITZAren harpidedunentzat abantailak



**Tolosa** » Egungo egoera ikusita hauteskundeetan legez kanpo utzi zuten EAE-ANV alderdiak izango duen jokabidea azaldu du.

## «Udaletxean parte hartzeko konpromisoa hartu dugu»

### ERREDAKZIOA

Tolosako herriari zera adierazi nahi izan dio Tolosako EAE-ANV: «EAEren kideak Udaletxean izango gara». Hemendik aurrera «udaletxeko Batzorde eta Osoko Bilkuretan parte hartzeko konpromisoa hartzen dugu. Gai-nontzeko taldeekin adostasunez egiten saiatu gara. Ezinezkoa izan da». Gaurtik aurrera, «gure parte-hartzea ekiditeko edota zailtzeko hartzen diren neurri guztien erantzukizuna alkatearengan kokatzen dugu».

### Bozka-emaleak ordezkatu nahian

2007ko hauteskundeetan, Tolosako EAEk 20 herritarrek osatutako hautes zerrenda aurkeztu zuen, baina Espainiako Estatuak hautes zerrenda legez kanpo utzi zuen. Erabaki horrek sortu zuen «etsipena» gaindituz, ia 2.000 tolosar joan ziren EAE idatzia zuen bozka hautes ontzietan sartzera, «Tolosako bigarren indar politikoa, ondorioz, zerrendako lehen 4 hautagaiak demokratikoki hautatuak izan ziren».

Bereziki, hitzez, Alderdien Legearen aurka daudenez, EAE-ANVren eskaera zehatza jaso zuten: Udal berria herriaren hitza errespetatuz osatzea. «Horretarako formula legala ere mahai gainean jarri genuen». Bada, «uko egin

### «Udaletxean uko egin zioten gure eskaerari eta lau aulki lapurtu zizkiguten» dio EAEk

zioten gure eskaerari eta EAE-ANVko kideei zegokien zinegotzi aulki bana lapurtu zuten», diote.

Modu horretan, EAJ eta EA Alderdien Legearen sostengu nagusi



Atzo emandako prentsaurrekoan, Tolosako udaletxeko pleno aretoan, Tolosako EAE-ANVren kideak. N. URBIU

bihurtzen direla azaldu dute, «izan ere, hauen parte-hartzerik gabe, lege antidemokratiko hori ezin da aplikatu, eta esaten dutenaren aurka jokatzeko duen alderdi hauen erantzukizun osoa azpimarratu nahi dugu».

Aralarren jokabideaz Irazabalbeitia EB-Aralar zerrendako hautagaiak ez zuela Ostiza EAEren hautetsiaren zinegotzi kargua hartu, «baina ez dio bere jabe zilegiari ere itzuli», diote. Aldiz, «bere burua ezkertiar eta abertzale duenarentzat, demokratentzat, jokabide hau onartezina da eta gogor salatu nahi dugu».

«Herriarren erabaki demokratikoa berrezartzeko EAE-ANV bidelagun izango da. Bestela, lege espainolak sortutako egoera antidemokratikoari eusten tematzen badira, han izango gaituzte eta sakalata etengabea izango da».

Egoera hau izanik ere, Tolosako EAE-ANV «bere herriaren alde lan egiteko prestutasun osoa agertu du, herriarrek in elkarlanean,

udaletxe barnean eta kanpoan». Horretarako, EAE-ANV Udalganoetan «bere parte-hartzea bermatuko zuten neurriak» hartzea deitu zituen Tolosako Udaleko alderdiak. «Horretarako mozio bat aurkeztu genuen azaroan, osoko bilkuran onartu zedin».

### «Herriarren alde egiteko»

Mozio honek EAEren ordezkariek, udaletxe barnean ere, «Tolosa eta tolosarren alde lan egiteko gutxieneko baldintzak» sortzea zuen helburu. Mozioan, puntu hauek aldarrikatu zituzten besteak beste: «EAEren udal hautetsiek udal batzorde informatibo eta, Osoko Bilkuretan eta organo instrumentaletan parte hartzeko duten eskubidea onartzea. EAE-ANVren udal ordezkarien parte-hartzea bermatzeko batzorde eta organo desberdinen funtzionamendu plangintza eta abar igortzeko erantzukizuna hartzea. Eta EAEren udal ordezkarien parte-hartze iraunkorra bermatzeko, ba-

liabide teknikoak eta udal egiturak ziurtatzea».

Mozio honekin «ez genuen sakoneko arazoa konpontzea bilatzen». Horretarako, «hauteskundeetan tolosarrek eman ziguten zielegitasuna onartzea ezinbestekoa da eta, zinegotzi lapurren dimisioa eta karguak dagozkien itzultzea beharrezkoa da».

Bada, EAJk mozio osoa osoko bilkurara eraman ez izana salatu dute. «Beraz, EAJk nahiago du gure herriaren etorkizuna PP eta PSOEren eraike; behar bada, EAEren ordezkarien presentziak agerian utziko luke badela gauzak egiteko beste era bat: borondate politikoa erositako adostasuna, tolosarren diruaz erositako isiltasuna».

### Etxebizitzaren inguruan

«Herriarren etxebizitzaren beharrezko lagunen patrikak betetzeko baliatzen ari dira», gehitu zuten. EAE-ANVren ustez, «udaletxeko eta Aldundiko teknikari

guztiekin esandakoa baztertzuz, Amenabar eta Sukia nagusiek agindutako zintzo betetzen ari dira. Kaltegarria da Tolosarentzat eta ilegala, gainera. Auzitegietan inpugnatu dugu, baina epaia jakin bitartean, EAJk arduragabeki eraikitza azkartu egin du. Ilegala dela jakinik obra baimena ematen duenak prebrikazio delitua egiten du, eta erantzukizunak eskatuko ditugu».

Bestalde, Teknikazio zentzoko arduradunekin sinatutako konbenioa ezkutatzeko ari direla ere salatu dute, «horretarako alkateak publikoki (2007-12-27ko HITZA) gezurra esan behar badu ere. Eta 2000 aparkaleku egingo zituztela ere esan zuten».

### Euskararen inguruan

Txuleta Festak zorrak eragin dituela ere adierazi du EAEk, eta Udalar hori ezkutatzea leporatu dio. «Bost ajola zaie euskararen berreskurapena. Azkena, PP eta PSOE pozik edukitzeko, osoko bilkuretan itzulpen sistema erabiltzeko hartu duten erabakia» da. Orokorrean, «atzerapausoa eman dute».

Euskal herritarrek «polizien esku jasaten dituzten torturak» ere ezkutatzeko dituztela adierazi zuten. «Lupiañez, Portu eta Sarasolaren testigantzen ondoren, zergatik ez du EUDELeko buruak gaitzespen adierazpenik egin?».

EAE-ANV politikoa egiteko «beste modu bat» eskaintzen duela diote: «abertzalea, ezkertiarra, herrikoa, parekidetasunean oinarritua eta herriarren interesa bilatzen duena. Bakoitzak duen hoherena Tolosaren eta Euskal Herriaren alde emateko prest».

EAE-ANVren ustez Tolosako Udalean «EAJren eskutik egin nahi zaion bazterketa Espainiatik PSOEk egiten dion ilegalizazio mehatuarekin bat dator». Helburu berbera dutela bieki diote, hau da, «herriar abertzale eta independentzia zaleak ordezkaritzarik gabe zuztea, eta ez dute lortuko».



## Markel Olano Anoetan izan da

**ANOETA** » Markel Olano Gipuzkoako Ahaldu Nagusia izan zen atzo Anoetan. Bertan, udaletxeko hainbat zinegotzi zeudela eta Periko Peñagarikano alkatearekin

ere egin zuten bisita. Jorratutako gaien artean herri ikastola izan zen horietako bat. Txikia geratu dela eta modulo bat gehitu behar diotela argi ikusi zuten. n.u.

## EAE-ANV deialdiak egin ditu egungo egoera politikoa aztertzeko

### ERREDAKZIOA

EAE-ANV, «bizi dugun egoera politikoa garrantzitsuaren aurrean» batzarrak antolatu ditu eta «hauetan ahalik eta jende gehien izatea gustatuko litzaiguke». Batzar gehienak gaur izango dira. Tolosan, 20:00etan Kultur Etxean, behoko gelan handian.

Alegian, batzarra izango da udaletxeko pleno aretoan. Bertan, bi gai aztertuko dituzte: une politikoa eta ANV-EAEren ilegalizazioa. 19:30ean hasiko da eta irekia da.

Leaburuko ezker abertzaleak 20:00etan gazte gelan batzarra

egin du. Bi gai aztertuko dituzte: egungo egoera politikoa eta herri antolakuntza. Ezker abertzaleak herriarrei deia egin die bertara azaltzeko, «herriko egoera larria ere kontuan hartuta».

Amezketan balioiztatzeko gelan 20:30ean elkartuko dira, gai berdinak jorratzeko, eta herriar guztiak gonbidatuz.

### Bihar Ikaztegiatan

Bihar, berriz, 20:00etan herri batzarra egingo dute Ikaztegiatoko kiroldegian. Bertan, egoera politikoa eta hauteskundeetako jarrera aztertuko dute.



Hamaika Bertuteko hainbat kideek etzi egingo den jaialdia aurkeztu zuten Donostian. NAGORE IRASTORZA/IRUTXULOKO HITZA

## Hamaika Bertute Eguna bertso eta jai kutsuz Durangon egingo dute etzi

**Bertsolaritza** » Urtearen balorazioa egiteaz gain, Hamaika Bertute Eguneke egitaraua aurkeztu zuten atzo Donostian.

### ASIER IMAZ

Hamaika Bertute taldeak azken urteko balantzea egin zuen atzo Donostian. Taldeko kideen artean, besteak beste Amaia Agirre,

Unai Muñoa, Diego Riaño eta Bixente Gorostidi bertsolariak aurkitzen dira.

Balantzea egiteaz gain, etzi Durangon (Bizkaia) egingo duten jaiaren inguruko berri ere eman zuten.

### «Uste baino urrunago»

12 hilabete igaro ondoren, «uste baino urrunago» iritsi direla aipatu zuten, bertso espazio bat bete dutela gehituaz. Hasieran jarritako

helburua bete dutela ere onartu zuten, hau da, «kalitatezko tratu bat eskatzearen trukean, kalitatezko saioak eskaintzearena». Honen barnean, «mota guztietako saioak» egin izana aipatu zuten, «bertso jaialdiak, egun pasak, mendi irteeretako saio batzuk...».

Ekimen bereziak azpimarratzeko garaian, Herri Irratian Mikel Markezzen saioa, ikastetxeetan egindako bertso saio pedagogikoak eta Bartzelonan (Herrialde Katala-

nak) eta Kubara eginiko bidaiak aipatu zituzten.

### Hamaika Bertute Eguna, Durangon etzi

Taldeko kideek aipatu zuten, «Hamaika Bertute 2007ko urtarilaren 13an sortu zen ofizialki. Egun hartan ospatu zen lehen Hamaika Bertute Eguna Donostian. Proiektuak ordea, urtebete zerraman mamitzen bertsogintzan buru-belarri murgildutako pertsonen bilereetan».

Bigarren jai eguna Gipuzkoatik Bizkaira eramanez, Durangora hain zuzen ere. Ez da bi daten inguruan bakarrik ibiltzen den egitasmoa Hamaika Bertute, izan ere, iragan urtean «170 saiotik gora egin dira».

II. Hamaika Bertute Eguna ordea ez da ekitaldi bat gehiago, bertan, ekimenaren lehen urteurrena ospatzen, «bide hau gurekin egin dutenekin eta egingo dutenekin egun batez gozatzeko», egitaraua anitza aurkeztu zuten, beti ere bertsoa ardatz hartuta.

### Egitaraua: 11:00etatik aurrera

Durangon etzizako deialdia egin dute Hamaika Bertuteko kideek. 11:00ak aldera bilduko dira eta 14:00ak arte, hainbat ekitaldi burutuko dituzte. «Lehenik hamai-ketakoia egingo dugu Plateruenean. Ondoren, bertso triki poteoarekin Durango kaleetan barrena ibiliko gara bazkaltzeko ordua iritsi arte».

Oinik eta eztarria astindu ostean, 14:00etan Plateruenera itzuli-ko dirabertso-bazkarilegera. «Hamaika Bertuteko gai-jartzaile taldearduratuko da bertso-bazkaria ezustez betetzeaz. Bat-bateko bertso mordoak ez ezik bertso musika-tiak ere entzun ahalko dira».

## Laburrak

### Gaszte Topaketa etzi inguruko gazteentzat

**ZIZURKIL** » Gaszte Topaketa izango da Zizurkilgo Atxulondo Kultur-Etxean etzi 16:30etik 19:30era. Bertan filmak, mahai-jokoak, musika eta lagun berriak egiteko aukera egongo da. Zizurkil, Aduna, Alkiza, Asteasu eta Larraulgo 12-16 urteko gazteentzat antolatuko dute Gaszte Topaketa eta Zizurkileran nor bere kabuz joan behar dela jakinarazi dute antolatzaileek. Horretaz gain, gustuko musika eta jokoak eramanez daitezkeela aipatu dute.

### Eskalada ezagutzeko aukera etzi 11:00etan

**ASTEASU** » Eskaladarekin 12-16 urteko gazteek lehen kontaktua izan dezaten, dohako ikastaroa antolatuko dute Asteasuko frontoian aurkitzen den Rokodromoan. Etzi 11:00etatik 13:00etara elkartuko dira bertan, Zizurkil, Aduna, Alkiza, Asteasu eta Larraulgo gazteak. Materiala bertan egongo dela jakinarazi dute antolatzaileek.

### Jon Rekondo igandean Lekunberrin ariko da

**LEITZA** » Jon Rekondo aizkolari leitzarrak igandean Urrezko Aizkolari Binakako Txapelketaren norgehiagokajokatuko Miel Mindediarekin bikote eginez, Mugerza eta Barberenaren aurka. Dema Lekunberrin (Nafarroa) izango da eta jaialdia 12:30ean hasiko da. Bikote irabazleak txapelketan jarraitzeko txartela lortuko duen bezala, gazteak lehen aurtengo edizioari agur esango diote.

### Kirol Jardueretako diru laguntzak eskatzeko epea

**IBARRA** » Ibarra Udalak jakinarazi duenez, 2008ko Kirol Jardueretako diru laguntzak eskatzeko epea urtarilaren 31ean amaituko da. Eskaerak egiteko, herriko kirol elkarte, bestelako elkarte eta kirolari zuzendu zaie Udala. Eskaerak egiteko edo informazio gehiagorako, Ibarra udaletxera joan beharko da.

### Etzetik kanpo 7-1 galdu du Ibarra areto futbol taldeak

**IBARRA** » Ibarra areto futbol taldeak porrota jaso zuen etzetik kanpo iragan asteburuan. Kantabriako Candesa Camargo taldeak 7 gol sartu zituen ibarbarrei, hauek berri-rik bakarrik. Ruben Etxartek lortua. Haseratik oker hasi zen eguna, izan ere, autobusa orduerdi berandu irten baitzen Ibarratik. Partiduari dagokionez, helburu bakarra izan zuen Ibarra areto futbol taldeak, jasotzen ari zen egurrari itxura ematea. Izan ere, jokuan eta markagailuan beti atzetik ibili ziren, 7-0 gaitzen joan zirelarik. Etxartek lortu zuen ibararren gol bakarra.

## «Autoeraketa eta autogestioa dira Hamaika Bertuten bildu gaituen kideon oinarriak»

**AMAIA AGIRRE** » Bertsolaria

**Bertsolaritza** » Etzi Durangon urteurreneko festa ospatuko dute Hamaika Bertute taldeko kideek.

### AIMAZ

Berrogeita hamar kidez osaturiko taldea da Hamaika Bertute. Ateak zabalik dituena Amaia Agirreren (Villabona, 1977) esanetan. Horregatik gonbitea luzatua dago «bertsolaria eta gai emale eta abarrei».

### Zer da eta noiz sortu zen Hamaika Bertute?

Talde honetan bildu garen bertsolari, gai emale eta abarrek bertso-gintzan jarduteko gogotsu gaude. Proiektu hau gogo horri irtenbidea emateko modu bat dela uste dugu. Badira Euskal Herrian gogo hori



BERTSOZALE ELKARTEA

bera duten bertsolari gehiago; horregatik, irekita dagoen taldea da. Bere filosofiarekin bat egiten duten bertsolariek eta gai-jartzaileek bertan izena emateko aukera dute. Autoeraketa eta autogestioa dira Hamaika Bertuten bildu gaituen kideon oinarriak, eta ofizialki due-la urtebete sortu zen. Hasieran do-

zena bat lagun elkartu ziren, eta gaur egun berrogeita hamar lagun-ek osatzen dugu taldea.

### Zer nolako balorazioa egin du-zue?

Orokorrean oso ona. Urtebetean ehun eta hirurogeita hamar saio egin ditugu. Ia denak lagun arteko-ak, eta antolatzaileak orohar-gu-

tura geratu dira. Saio batzuk lehen aldiz antolatutakoak ziren, eta beste batzuk berreskuratutak direnak. Denetik egon da. Saioen gehiengo Gipuzkoan antolatuta da, eta bertsolari gehienak ere bertakoak gara, baina atek zabalik daude parteide izan nahi duenarentzat. Lanerako gogoz eta konprometuz hartzeko prest egotea ezinbestekoa da.

### Etzi, urtarilaren 12an, Durangon egingo duzue urtemugako festa. Nola ospatuko duzue?

Iaz Donostian egin genuen, eta aurtun Durangoko Plateruena kafe-antzokian hasiko da festa. Hamaiketakoia izango da bertan, eta ondoren, soinu-joleen lagun-tzarekin, bertso-potea izango da. Ordubetan Plateruenera bazkaria, eta bazkalostean bertso-saioa. Bertsorik ez da faltako.



Ezker abertzaleko hiru kide (Sestorain, Zabalo eta Gastearena) uztailen Aurreran egindako bilera batean. N. GARZIA

## Bihar ezker abertzaleak deituta, bilera udaletxean

**Hauteskundeak** » Martxoaren 9an izango diren hauteskundeak izanen dituzte hizpide, 20:00etatik aurrera

### ERREDAKZIOA

Bihar ezker abertzaleak martxoko hauteskundeen inguruan batzarra egingen du udaletxean, 20:00etan.

Leitzako ezker abertzaleatik azaldu dutenez, «martxoan ANVk bere zerrenden aurkezpena egingen du Iruñeko Anaitasuna kiroldegian». Anaitasunako kiroldegiko ekitaldia nazionala izanen da eta 17:30ean egingen dute. «Hau lehendabiziko urratsa izanen da», diote ezker abertzaleak. «Helburua da datozen hauteskundeetarako independentistion bozkak bilteza, ahalik eta bozka gehien bilteza, alegia, batez ere ikusten delako une honetan Espainiak kriston eraso duela Euskal Herriaren kontra. Modu horretan jokatu nahi dute, helburu bat dutelako: PSOEk zuen helburua zen ez-

ker abertzaleak Kataluniako estatutu moduko idatzi bat sinatzea. Hori ez dute lortu, eta beraien asmoetan sartzen da etorkizunean, EAJ eta Nafarroa Bai-rekin batera erreforma hori gauzatzea». Leitzako ezker abertzalearen ustez, «hori lortzeko oztopo handi bat dute eta hori ezker abertzalea da. Hori nahi duten bezala gauzatzeko ezker abertzalea erabat ahuldu behar dute. Honek esan nahi duena da jendea kartzeleratua, beldurtua, etsipenean sartua... egotea». Datozen hauteskundeak ikuspuntu horretatik kokatu behar direla dio ezker abertzaleak.

### Ilegalizazioa

Ilegalizazioaren «mehatxua» ere hor dagoela gehitu dute. «Gure helburua da independentisten aukera Madrilen izatea eta bere momentuan ere parlamentuan parte hartzea. Hori da guk egin nahi dugun apustua, gero utziko diguten edo ez? Badirudi ateratzen ari diren zurrumurruekin oso epe mota ilegalizazio bat egingen dutela. Ikuspegi horretatik planteatzen

duguna da eraso horri ahalik eta erantzun indartsuena ematea». ANVren ilegalizazioaren esanahian sakonduz, ez litzateke soilik alderdi baten ilegalizazioa izanen gehitu dute. «Ikusi behar da ANVk 70 urte dituela, frankismo garaia pasatu duela, eta Espainiaren partetik ere errekonozimendua izan duela: esaterako, duela 2 urte eman zizkieten frankismo garaia izandako konfiskazioen trukean diru laguntza bat. PSOEk proposatutako zerbaite izan zen eta momentu honetan gauza ongi atera ez zaionean horrekin bukatzea planteatzen ari da».

Honetaz gain, ezker abertzalearen planteamendua zehaztuko dute bihar udaletxean egingen duten bileran. «Guk planteatzen duguna da aukera ederra daukagula, alde batetik erreforma hori egiteko bideratuta dagoen operazio hori gelditzeko eta bestetik Euskal Herriaren eskubideetan oinarritzen den marko demokratiko bat lortzeko. Erreforma horrek zalantzarik gabe, beste 20 urteetarako gatazka suposatuko bailuke».

## 'Un funeral de muerte' filmarekin zinema berriro martxan

**Zinema** » Asteburu honetan botako dute Frank Oz zuzendariaren filma, bihar gaueko 22:30ean eta igandean, 19:30ean

### ERREDAKZIOA

Abenduko geldialdia eta gero, filmak botatzeko makina konpondu dutenez, bihar lehenengo filma eskainiko dute, Frank Oz zuzendariaren *Un funeral de muerte* izenakoa.

Komedia beltzean oinarritutako film honek hiletaren istorioa kontatzen du. Familia ingeles bat hil berri den aitaren hiletara prestatzen ari da. Semeen artean tentsioa berpiztu egingen da garai bateko haserreak azaleratzen dituztenean. Tentsioa areagotzen doa, eta hiletara prestatzeko hau gutxi balitz, bat-batean ezezagun bat azalduko da, hildakoak sekretu bat ezkatzen duela azalduz.

Albiste honen ondoren, familiak neurri gogorak hartu beharko ditu hilketa hondamendi batean bihurtu ez dadin.

### Filmari buruzko zenbait datu

Filmak 90 minututako iraupena du, 2007ko urriaren 11an estreinatu zuten eta Alemania eta Estatu Batuan egin zuten. Aktoreak bezharbada hemen oso ezagunak ez izan arren (13 aktorek hartzen dute



Filmaren jatorrizko kartela. HITZA

parte film honetan, besteak beste, Matthew Macfadyen-ek, Keeley Hawes-ek, Andy Nyman-ek, Ewan Bremner-ek, Daisy Donovan-ek), kritika aldetik oso erantzun ona jaso zuen Frank Oz-en filmak eta gidoiaren kalitatea eta filmaren umorea azpimarratu zituzten.

### » FRANK OZ-EN FILMAK

- 1983. *Cristal oscuro.*
- 1986. *La tienda de los horrores.*
- 1988. *Dirty Rotten Scoundrels.*
- 1991. *¿Qué pasa con Bob?*
- 1992. *Housesitter.*
- 1997. *In & out.*
- 2001. *The score.*
- 2004. *Las mujeres perfectas.*
- 2007. *Un funeral de muerte.*

## Laburrak

### Elkartasunaren aldeko afariko zozketako irabazlea

**LEITZA** • Urtero bezala, Errege Bezerperan egingen duten elkartasunaren aldeko afarian aurten ere txerri bat zozketatu dute. 034, hauxe izan da saria irabazi duen zenbakia. Antolatzaileek azaldu dutenez, txartela emateko epea larunbatean amaituko da, eta 034 txartelaren jabea azaltzen ez bada, zozketa berriro egingen dute.

### Mikel Urdangarinen kontzertua, Leidor aretoan

**TOLOSA** • Mikel Urdangarinen abeslariari bihar kontzertua eskainiko du Leidor Aretoan. Kontzertu honetan duela gutxi atera duen diska aurkeztuko du: *Anek idatzi dit zutaz*. Kontzertua 20:30ean hasiko da eta sarrerak oraindik salgai daude Servikutxan eta Kutxanet-en. Sarrera bakoitzak 10 euro balio ditu.

**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

## Hilberriak eta urteurrenak

I. urteurrena  
**FLORENCIA CAMARA KAMIO**

Muxu handi bat eta gero arte

**Seme-alaben eta familiaren partez**

**ERRETERIA**  
2008ko urtarrilaren 10a

**MARIA LUISA INTXAUSTI PEÑA**  
(IGNACIO MAIORAREN ALARGUNA)

Herenegun hil zen, Donostian, 93 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

— Golan bego —

Alaba, Itziar; bilobak, Antxoka eta Eneko; ahizpa, Concha; koinatak, Lola Maiora (Jose Peinadoren alarguna), Malen Ramos (Juan M. Intxaustiren alarguna) eta Pilar Ugaldel (Xanti Intxaustiren alarguna); hila, lehengusu eta gainerako ahaideek. Haren arimaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitzetzela GAUR ZUMAIAN, 19:00etan, San Pedro Apostoluaren parrokian egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

**ZUMAI A**  
2008ko urtarrilaren 10a

Helbidea: Itzurun, 5.3. ez.



13°  
10°

GOIZA	EURIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	13°
HOTZENA	8°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Deialdiak

- **Tolosa.** Oargi mendi elkartek Pirinioetara irteera antolatuta du hilaren 18tik 20ra: ostiralean Lizara aterpetxera joan, igandean Bisaurin mendia igo (2.640 m) eta igandean Bernera mendilerroa igo ondoren itzuliko dira. Izen-ematea, 637 830380 telefono zenbakian.
- **Amezketeta.** Bertso eskolan hasi nahi duten guztientzat (izena eman dutenak nahiz interesa duten guztiak) bilera izango da balioanitzeko gelan. Bileran 19:30ean da, eta ordutegiak eta taldeak finkatzeko izango da.
- **Tolosa.** Bidart-Uztaritze mendi ibilaldia antolatuta du Alpino Uzturre elkartek igande honetarako. Izen-ematea, elkartean edo 943 652789 telefono zenbakian.
- **Tolosa.** Mikel Urdangarinen kontzertua izango da Leidor aretoan bihar, 20:30ean *Anek idatzi dit zutaz* diskoa aurkezteko. Sarrerak salgai Servikutxan, Kutxaneten edota [www.kutxa.net-en](http://www.kutxa.net-en).
- **Tolosa.** Sahararrak laguntzeko janari bilketa abian da eskualdean Tolosaldea Sahararekin elkartean eskutik. Arroza, dilistak, hegala, azukrea eta konpresak utzi behar dira aurtengo kanpainan.

### Zinema

- **Tolosa.** Richard Bergman-en *Un verano con Monica* filma emango dute zine-klubean, Leidor aretoan 19:15ean eta 21:45ean.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.
- **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



## Uzturreko tontorrean urteari ongietorria

**TOLOSA** ● Tolosako koadrila askok eta askok ohitura dute, urteari hasiera edota amaiera Uzturre mendiaren puntan ematea. Hala, tontorrean txanpaina eta turroiarekin ospatzen dute egun berezi hau. Aurten Alpino Uzturre mendi elkartek 50 urte egiten dituen, deialdi berezia egin zuen Urteberri egunean, denak garai berean tontorrera igotzeko. Hone-

kin, urteurrenko ospakizun ekitaldiei hasiera eman zieten. Bestalde, elkarteko kideek nahiz inguruko mendizaleek elkarrekin argazkia atera zuten. Orotara, 80 lagun inguru bildu ziren. Izan ere, argazki hau, Alpino Uzturreren 50 urte hauetako historia biltzen duen eta 2008 urtearen amaieran argitaratuko den DVDa eta libururako erabiliko dute. HITZA

## A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

txokoa h

antzezlanerako  
**5 sarrera pare**  
zozketan

urtarrilak 11 o ostirala, 20:00etan  
Donostiako Antzoki Zaharrean



gonbidatzen zaituzte

**SOMMER**  
JAUNAREN ISTORIA

irabazleak:

- Miren Intxaurren Arraras (Leitza)
- Aiztondo Zerbitzu Mankomunitatea (Zizurkil)
- Goyo Barandain Dorronsoro (Irura)
- Agustin Amiano Gurrutxaga (Altzo)
- Antonio Mujika Iraola (Villabona)



HITZAren harpidedunentzat abantailak

sarrerak leihatilan bertan izango dituzue